


# ESKALE FILOSOFOA

MAXIMO GORKI



© Marjinalia Bilduma  
2000. urtea  
Lege-Gordailua: SS-888/2000

## ESKALE FILOSOFOA

### I

Herrira heldu nintzenean, gaua zen. Etxeak inguratzen zituzten hesiekin estropezu egiten nuen eta hankak lohizko ibai batean sartuta neuzkan. Egoerak akuilaturik, leiho batetik bestera ibili nintzen, kristaletan emeki jo eta galde eginik:

—Gaua bertan igarotzen utziko al diozue bidaiari txiro honi?

Erantzun moduan, auzoko batzuek kartzelara bidaltzen ninduten; eta beste batzuek, infernura. Leiho batetik, txakurrak nire aurka xaxatuko zizkidaten mehatxua egin zidaten; beste batean, ukabil mutu baina adierazkor bat agertu zen.

—Hoa! hoa! Oraindik bizirik hago-eta — hots egin zuen emakume batek—. Nire senarra barruan zegok.

Ulertu nuenez, emakume zintzo hark ostatu-eske zebiltzatenei ez zien abegi onik egiten senarra kanpoan egon izan ezik... Hala izatea zinez damaturik, hurrengo leihora jo nuen:

—Jende zintzo horiek, gaurko gaua zuenean igarotzen utziko al diozue ibiltari gizarajo honi?

—Jainkoak lagun zaitzala, anaitxo... Jainkoak lagun zaitzala. Segi aurrera.

Euri hotz eta fina erortzen zuen, eta lur bustian iluntasuna nagusitzen zihoan. Noizean behin, haize-boladak altxatzen ziren auskalo nondik, zuhaitzen adarrak astindu eta teilatuetako lastoari dardar eraginez. Haizeak soinu beldurgarriak ateratzen zituen, gaueko isiltasun sakona asaldatzen zutenak, zizpuruz eta aienez eginiko hileta-melodiaren antzera.

Udazken izeneko olerki melankolikoaren atariko hitz goibelak entzunda, herriko bizilagunak —euren etxeetan ondo babestuta— umore txarrez jartzen ziren antza, eta horregatik ez zidaten ostatu eman nahi. Abegi horren aurka luzaro borrokatu banintzen ere, besteek temati eutsi zioten euren jarrerari; eta azkenik, kale gorrian lo egin beharko nukeela etsitzen hasi nintzen.

Herria utzi eta landa aldera jo nuen, lasto-metaren bat topatuko nukeen esperantzan. Ilunaren erdian, ordea, adur onak lagundu beharko zidan halakoren bat aurkitzen.

Bat-batean, eta nigandik urrats gutxira, ni baino altuagoa eta gaua bera baino ilunagoa zen

zerbait altxatzen zela ikusi nuen, eta etxalde baten aurrean nengoela ulertu nuen.

Etxaldeek abantaila handia dute eskaleontzat: ez daude lurraren arrasean eraikita; harri edo egur-oholen gainean asentatuta baizik. Etxeko zoruaren eta lurraren artean, nire moduko gizon zintzo batentzako adina toki badago. Buruz behera jartzea eta arrastaka ibiltzea baino ez da behar.

Antza denez, nire adur onak aterpe bat eskaini nahi zidan gau hartarako; etxe baten barruan ez bazen, bai etxe baten azpian bederen. Poz-pozik, lurretik haztamuka irristatu nintzen, kokaleku egoki baten bila. Eta halako batean, itzaletatik sortuta, ahots lasai bat heldu zitzaidan, esanez:

—Ezker aldera, jauna.

Ez nuen susto ikaragarria hartu, baina bai ustekabe galanta. Galde egin nuen:

—Nor dabil hor?

—Gizon bat... makila batekin.

—Nik ere makila dut.

—Eta poxpolurik ba al duzu?

—Bai, badut.

—Bikain!

Bestearen poza ulergaitza egin zitzaidan.  
Hobe tabakoa eta ogia izan bagenitu.

Nire solaskide ikustezinaren ahotsak berriz  
ere galde egin zidan:

—Ikusten dudanez, ez dizute herriko etxe  
batean lo egiten utzi. Ezta?

—Ez —erantzun nion.

Horretaz ez zegoen zalantzarik... baldin-eta  
zinez ostatu-eske aritu izan balitz. Zeren nik ez  
bainuen ziur jakiterik leku hartan agertu aurretik  
herrian aterpe-eske ibili zenik. Esaterako, nola igar  
nezakeen nik arriskutsua izan zitekeen proiekturen  
bat gauzatzeko asmorik ez zuenik, gaueko  
iluntasunaz baliaturik?

Beraz, Jainkoaren begitan lanak oro  
atseginak direla ulertuta ere, eskuan neraman  
makilari gogor heldu nion.

—Ez zaituzte abegi egin nahi izan? —  
galdegin zidan ahotsak berrero—. Zerri halakoak!  
Eguraldi ona egiten duenean, atea zabaltzen dizute  
beti. Baina halako eguraldia egiten duenean,  
aurpegi-aurpegian ematen dizute atearekin...

—Nora zoaz? —galdetu nion.

—Zera... Nicolaief-era. Eta zu?

Esan egin nion.

Orduan, norabide berean gabiltza. Mesedez, piztu poxpolo bat. Erre nahi dut-eta.

Poxpoluak bustita zeuden eta hainbat alditan igurtzi behar izan nituen nire gaineko zutabearen aurka. Azkenik, argitxo bat piztu zen.

Orduan, ilunpean, nire solaskidearen aurpegia ikusi nuen. Bizar beltz lodiko gizona zen; begi handi eta adimentsuekin begiraten zidan, ironiaz; bibote azpian, hortz zuri ederrak nabarmentzen ziren.

Esan zuen gizonak:

—Zigarro bat nahi al duzu?

Poxpolua iraungi zen. Beste bat piztu nuen, eta horren argitan elkarri begiratu genion berriro. Ikusitakoaz pozik nonbait, nire aterpekideak esan zuen konbentzimendu handiz:

—Antza denez, elkarrekin ez gara oso gaizki moldatzen... Tori, har ezazu zigarro bat.

Hortz artean best zigarro bat zuen. Eta erre ahala, argitasun gorriska eta zurbilak begitartea argitzen zion... Begi inguruan eta bekoki gainean, zimur mehe baina sakonak markatzen zitzaizkion. Halaber, haren jantziaren osakera ere bereizi ahal izan nuen: nata koloreko beroki baten piltzarrak, hain zuzen. Gerriko moduan soka batek balio zion, eta oinek larruzko puska bakarrez eginiko zapatagisakoetan hartzen zuten atsedean. Don ibai-bazterretan, “porquecú” deitzen zaizkie.

Ezin izan nion hauxe galdetzeari:

—Erromesa al zara?

—Bai horixe, zeren etengabe bidaiatzen naiz. Eta zu?

—Ni ere etengabe bidaiatzen naiz.

Hori esanda, mugitu zen gure gizona eta teontziak edo marminak —erromes ororentzat ezinbestekoak diren ontzitesna horietariko edozeinek— metalezko hotsa atera zuen. Artean atzeman gabe neukan klase horretakoei darien ahoskera bigun eta hipokrita. Ordura arte bestearen solasa ez zen behin ere eten, ez zizpuruekin ez Bibliako aipuekin. Alde horretatik ezer gutxi zeukan eskale-leinukoekin, «leku santuetara» erromesaldian joaten direnekin alegia, Errusiako fauna nomada kontagaitzaren barruan sarturik baitaude horiek ere; areago, txarrena ere bada,

zeren landa inguruak usteltzen baititu, nekazari artegabeen baitan beti kausitzen diren gezur eta sineskeriak aldarrikatu eta zabalduz.

Horrez gainera, Nicolaief-era bidez zihoan, han ez baitago «ezer santurik» ezta erlikiarik ere...

—Nondik zatoz? —galde egin nion.

—Astrakan-etik.

Astrakan-en ere ez omen dago erlikiarik; beraz, aursatu nintzen galde egitera:

—Itsaso batetik bestera zabaltza, baina «leku santuetatik» urrun.

—Hortik ere pasatzen naiz noiz edo noiz. Eta zergatik ez, gero? Halako tokietan jasotzen du batek traturik onena, batez ere apaizak ulertzen eta pozik uzten jakinez gero... Izan ere asko maite gaituzte, distraitzeko aukera ematen baitiegu noiz edo noiz. Zuri zer iruditzen zaizu?

Esan egin nion.

—Bai, adiskide. Hala da .«Leku santuak» onenak dira bapo jan eta edateko... Eta zu, nondik zatoz orain?... A!... Ez da bide makala. Piztu beste poxpolo bat, eta gehiago erreko dugu. Bati zera iruditzen zaio, zigarroak erretzen beroago izango dela.



Egia esan, hotza egiten zuen eta gure jantzi busti-bustiek eta lotsagabe barrura sartzen zitzaigun haizeak hotza areagotu baino ez zuten egiten.

—¿Ez al duzu uste zerbait jan beharko genukeela? Baditut ogia, patatak eta bi bele erre... Jango al ditugu?

—Beleak? —galde egin nion harriduraz.

—Ez dira zure gustukoak ala? Bada ez dakizu jaki ona zer den.

Ogi-puska handi bat luzatu zidan.

—Sekula ez dut belerik jan.

—Bada dasta itzazu. Udazkenean sekulako zaporea dute-eta. Gainera, hobe da nork bere eskuekin amuz harrapatuta beleak jatea, jendeak etxeko leihotik jaurkitzen dizkigun ogi edo jaki zirtzilak baino..., limosna jaso orduko gogoz bai gogoz su emango geniokeen etxetik jaurkita gainera.

Esaldiok bota zituen zentzuzko ahotsez, lasai eta atsegin. Niretzat beleak jateko ohitura berria zen, baina ez nengoen harri eta zur. Banekien Odesan neguan bide-lapurrek arratak jaten dituztela; eta Rostoff-en barraskilo piloa kontsumitzen dela. Hori ba ote da harrigarria?

Paris-eko herritarrek, 1871. urteko setioan, zikinkeriarik handienak jaten zituzten gustura handiz, eta setiaturiko plaza batean bezala bizitza igarotzen duten pertsonak ere badira.

—Nola harrapatzen dituzu beleak? —galde egin nion.

—Ahoarekin ez, noski. Ez da zaila makilaka edo harrika hiltzea beleok, baina onena da amuaz baliatzea. Horretarako, nahikoa da puntan okelatedo koipe-puska bat lotzea; ogi-azal batek ere balio dezake. Animalia oldartu, irentsi... eta harrapaturik gelditzen da. Berehala lepoa bihurritzen zaio beleari; gero, lumatu eta sutan jartzen da, erretegi bezala taket batez baliatuta.

Orduan, zera atera zitzaidan barru-barrutik:

—Ez legoke gaizki orain su ondoan bageunde!

## II

Giroa gero eta hotzagoa zen. Bazirudien haizeak berak dar-dar egiten zuela, eta etxaldeko hormen aurka ahots mingarri eta beldurtiz nola jotzen zuen entzun genezakeen. Batzuetan, txakurzaunkekin batera heltzen zitzaigun, edota oilarren kantuairekin batera edota hurbileko elizako ezkil-

hots goibelarekin batera. Euri-tantak lur bustian zehar labaintzen ziren.

—Aspergarria da etzanda egotea hitz egin ezinik —esan zuen nire kasualitateko adiskideak.

—Zailena da halako hotza eginik solastatzea —ihardetsi nion.

—Jar ezazu mihina besoaren azpian eta berotu egingo zara.

—Eskerrik asko aholkuagatik.

—Beno, elkarrekin jarraituko al dugu bidaiarekin? Bide beretik goaz-eta.

—Elkarrekin jarraituko dugu, nahi baduzu.

—Kasu horretan, aurkez ditzagun geure buruak. Nik, esaterako, Pablo Ignalief Promtolf dut izena, eta aristrokraziakoa nauzu.

Nik ere nire izenaren berri eman nion.

—Ondo kunplimentaturik gaude hortaz. Beraz, utziko didazu galdera bat egiten: nola heldu zara eskale-kondizioan erortzera? Pattarrari diozun maitasunagatik, ezta?

—Bizitzak izorratzen ninduen.

—Ez naiz harritzen, gero eta gero... Eta, izan al duzu noizbait «Errolda Judiziala» erakundearen berri?

—Bai horixe.

—Eta «Errolda» horretan al dago zure izena?

Orduko hartan oraindik nire izena ez zegoen errolda horretan agertzen, eta hala esan nion.

—Nirea ere ez.

—Baina uste al duzu noizbait agertuko zarela?

—Den-dena dago Jainkoaren esku...

—Badirudi gizon alaia zarela.

—Eta zergatik egon beharko nuke triste?

—Zure egoeran, mundu guztiak ez luke berdin pentsatuko —esan nuen, bestearen aitordpena zalantzan jarritz.

—Nire egoera bustia eta deserosoa da une honetan, baina egunsenti berriarekin hobera egingo du. Eguzkia ateratzekoa da, beti ateratzen da-eta. Ez al da horrela? Orduan bertotik alde egingo dugu,

tea hartuko dugu, mauka-mauka jango dugu edozer, berotuko gara... Txarra al da hori gero?

—Oso ona da —baietsi nion.

—Jakina! Alde txarrek orok alde onik ere badutelako.

—Eta alde on orok alde txarrik ere bai.

—Amen! —amaitu zuen Promtoff-ek, txantre-ahotsarekin.

Aitortu beharra daukat gero eta atseginago zitzaidala ezezagunaren laguntasuna. Tamalez ezin nion begitartea ikusi, oso esanguratsua izango zela uste banuen ere, ahots-inflexio ugariak baitzitu. Luzaro aritu ginen solasean gauza garrantzirik gabeei buruz, ganoragabetasun hartan elkar hobeto ezagutzeko nahia ahal bezain ondo disimulatuz. Eta niri dagokidanez, aitor dezadan zinez miresteako abildadea zuela nire mihina dantzan jartzeko, artean berak berataz hitzik bat ere ez kontatu.

Lasai solastatzen ginen bitartean, atertu zuen eta gaueko itzalak poliki-poliki arre koloretik zuriska kolorera igarotzen joan ziren, ekialdetik zerrenda arrosakara bat gailendu zen arte. Egunsentiarekin batera goizeko hozkirria heldu zitzaigun, sabela beteta eta arropak lehor ditugunean hain atsegina eta suspergarria egiten dena.

—Ez al dugu sua pizteko zerbait? —galdetu zuen Promtoff-ek.

Arretaz bilatu baina ez genuen ezer aurkitu, lurretik sugeak bezala herrestan ibili baginen ere.

Orduan, etxaldearen egiturari gaizki atxikitako zutabe bat erauztea erabaki genuen, segituan ezpaldu genuena.

Promtoff-ek ez zuen denborari galdu eta etxaldearen zoruan zulo bat egitea proposatu zuen, hortik garagar-ale batzuk lortzeko; izan ere uretan ondo egosiak jateko bikainak baitira. Nire aldetik protesta jaso nion, zeren behar genituen bizpahiru garagarren ordeztu hainbat kintal eroriko bailitzaizkiguke gainera aletegitik.

—Horrek ba al du garrantzirik akaso? — itaundu zuen Promtoff-ek.

—Besteen jabetza aintzat hartu behar da, denek dioten bezala...

—Eta ondo diote, bai... Besteen jabetza aintzat hartu behar da... horren jabea norbera denean.

Isildu nintzen, nire artean pentsatuz, ezen, gizaseme horrek jabetzaren arazoari buruz zituen iritziak beharbada arinegiak zirela, eta

adiskidetasun horretatik halako alde txar batzuk erator litezkeela niretzat.

### III

Eguzkia agertu zen, alai eta bizi. Ipar alderantz aspergarri eta antsikabe bazihoazen hodei askeen artean, noiz-behinka puska batzuk ikus zitezkeen zeru urdinean. Begien aurreko hedadura osoan dir-dir egiten zuten ur-tantak.

Promptoff eta biok gure untxi-zulotik atera eta moztu berria zen gari-soroa ingurutuz zuhaitz-lerro bihurri eta orlegitsuan zehar abiatu ginen, gugandik nahiko urrun bazegoen ere.

—Han ibaia dago —esan zuen Promptoff-ek.

Begiratu nion eta berrogei urte inguru izango zituela pentsatu nuen.

Bizitza ez omen zuen bere aldeko izan. Begi ilun eta sakon hondoratuek patxadaz eta segurtasunez beterik egiten zioten dardar, eta piska bat kliskatzen zituenean, begitartean halako espresio gogor eta maltzurra zirriborratzen zitzaion. Ibilera tinko eta akonpasatuak, bizkarrari trebe loturiko larruzko zakutoak, bere pertsona osoak ematen zuten alderrai igarotako bere bizitzaren berri. Bazirudien otsoa eta azeria berarkein bat zetozela.

—Esango dizut zer egingo dugun —esan zuen—. Ibaiaz harantzago, sei kilometrora, Mongolia herria dago; handik zuzen-zuzenean joango gara Novoa-Prugaraino, inguruotan estundistak eta nekazari ameslariak bizi dira-eta. Oso tratu ona ematen diote euren ideia bereziak lausengatzen dakienari. Baina, kontuz! hitzik bat ere ez da Eskritura Sakratuei buruz aipatu behar. Ezer ez baitute hobeto ezagutzen.

Leku bat aukeratu genuen makal beltz batzuetatik hurbil. Harri batzuen laguntzaz — euriaren eraginez urak uherturik bazeuden ere, ibaiertzean harri asko baitzeuden— sutegi antzeko zerbait egin genuen eta sugarra azkar asko hasi zen txinparka goizeko haize freskoaren erdian.

Gugandik bi kilometrora, goi-goian, egunsentiak herriska bateko lastozko sabaiak dirdirazten zituen. Etxetxoen hormatxoak zuriz nabarmentzen ziren makalen kukula zorrotzen gainetik, eta bertoko hostaila, udazkeneko nabardurak medio, dirdaitsu agertzen zen goizeko eguzki-errainupean. Tximinetatik zerien kea laranja- eta purpura-koloreko nabardurekin barreiatzen zen eta orban ilunak jaurkitzen zituen zeru garbiaren aurka.

—Bainu hartu nahi dut —esan zuen Promtoff-ek—. Halako gau baten ondoren ezinbestekoa da-eta. Gauza bera egitea aholkatzen



dizut. Eta buruak freskatzen ditugun bitartean, tea irakitan jarriko da. Badakizu txit arduratsuak izan behar dugula, gure gorputzak beti garbi eta artez egon daitezen.

Hitz egin ahala biluztu egin zen. Proporzio oneko gorputz hura arraza onekoa zen, bikain garaturiko gihar indartsuak zituelarik. Bestalde, erantzi berri zituen zarpail zikinak ordura arte iruditutakoak baino askoz higuigarri eta nazkarriagoak iruditu zitzaizdan. Baina izoztuaren hotzak jota eta ubelduta, su ondoan berotzen jarritako arropak jaztera lehiatu ginen. Gero, sutatik hurbil eseri ginen tea hartzeko.

Promptoff-ek burdinazko edalontzia zuen. Irakitan zegoen tea bertan isuri eta eskaini zidan. Baina gizonoi burla egiteko prest beti dagoen deabruak bihotzeko sasi-harietariko batean jo eta ia pentsatu gabe esan nuen:

—Eskerrik asko. Edan zuk lehen. Itxarongo dut —Promptoff heziera on eta eskuzabaltasunean nirekin lehiari zelakoan esan nuen hori; ni, berriz, aiduru nengoen bestearen modu oneko ezetzak noiz jasoko zain, lehenik edaten hasteko—. Baina hauxe baino ez zuen erantzun:

—Benoa.

Eta edalontzia ezpainetara eraman zuen.

Bizkarra eman nion eta inorgabeko estepari begira geratu nintzen, begietan islatzen zitzaion espresio zirtolaria ikusten ez nuela Promtoff konbentzitu nahian. Tea edaten zuen, ogia mastekatzen zuen, martirizatzerainoko patxadaz hori guztiori. Nik dardar egiten nuen nire gorputz-atal guztiekin eta ia prest nengoen irakitan zegoen ontziko tea nire esku-ahurrean isurtzeko.

—Ez da komeni hitz politekin denbora alferrikaltzea —esan zuen Promtoff-ek.

—Ez, noski —zizpuratu nuen nik.

—Oso ondo. Orain ederki ulertu duzu kontua. Zergatik beste inori eman zuretzat ona eta eroso dena? Gizon guztiok anaiak garela hamaika aldiz esan arren, orain arte inor ez da saiatu sistema metrikoaren bidez hori frogatzen.

—Ez ote didazu sinestarazi nahi izango esan berri duzuna, ezta?

—Eta zergatik esan beharko nuke besterik?

—Badakizu, gizonari gustatzen zaio den bezala baino piska bat hobeto agertzea.

—Ez dakit nola eragin dizun horrenbesterainoko konfiantza —esan zuen otso hark sorbaldak jasoz—. Tea eta ogia eman dizkizudalako? Bada begira, ez dut egin

anaitasunez, jakinminez baizik. Lekuz kanpo dagoen gizon bat ikusten dut eta jakingura naiz zergatik eta nola suertatu den bizitzatik kanpo jaurkita...

—Nik ere jakingura horixe daukat...  
Esadazu nor zaren, zertan ari zaren.

Begirada arakatzaillea zuzendu zidan eta isildu zen. Eta gero, esan zuen:

—Ba ote daki noizbait gizonak benetan zer den?... Galde egin behar zaio nor uste duen dela.

—Esadazu orduan nor uste duzu zuk zarela.

—Bizitza estuegitzat jotzen duen gizona naizela uste dut. Bizitza estua da eta ni... zabala. Beharbada hori ez da guztiz egia. Baina judu alderraiarengandik datozen hainbat pertsona daude lur gainean. Euren berezitasunik handiena lur gainean lekurik ez aurkitzea da, bertan erroak finka ditzaten. Halako berritasun-gogoa, halako artegatasuna dago halakoengan. Ahulenak ez dira inoiz euren gustuko frakak aurkitzeko gauza, eta horrek tristatu eta gogogabetzen ditu. Indartsuenei dagokienez, ezerk ez ditu pozten, ez diruak ez emakumeek ez ohoreek... Halakoak ez ditu inork maite munduan. Ausartak eta tratagaitzak dira. Gizonik gehienak eguneango txanponak bezalakoak dira eta haien arteko alderik ez dago akunazio-urteaz landa. Bata usatua da, bestea

berriagoa da; baina balio bera dute biek. Osagai duten materia berdin-berdinaz eginak. Xehetasunik txikienetan ere dira antzekoak... Baliteke balio txikiagokoak izatea... Hori da dena.

Halako irribarre eszeptiko batez hitz egiten zuen eta hark berak ere ez zituela bere hitzak seriotan hartzen iruditzen zitzaidan. Baina nigan jakinmin bizia sortzen zidan eta nor zen jakin arte hari jarraitzea erabaki nuen. Agerian zegoenez, gizon adimentsua zen. Eskaleen artean klase horretako gizon asko daude, baina arima hilak dira. Beren buruaz errespeturik oro, euren egoera moralaren kontzientziarik oro galdu dute. Egunez egun lohian hondoratzen doaz, urtu eta desagertzen diren arte. Promtoff-engan, ordea, zerbait tinko, estoikoa zegoen. Ez zen existentziaz kexatzen, besteek egiten duten bezala.

—Goazen? —galdetu zuen.

—Goazen —erantzun nuen.

#### IV

Teak eta eguzkiak susperturik, ibai ertzetik jarraitu genuen gure solasaz pozik.

Eta zer egiten duzu eguneko mantenua lortzeko —galdetu nion promtoff-i—. Lanik egiten al duzu?

—Nik lan egin? Ez; ez dut gogoko.

—Baina, orduan, nola?

—Ikusiko duzu.

Isildu zen. Urrats gutxira abesti alai bat hasi zen hortz artetik txistukatzen. Begiekin estepa arakatzen zuen zorrotz eta ziurtasunez eta zango luzean ibiltzen zen, helbururantz zuzen doan gizonaren antzera.

Bera aztertu nuen eta gizon harekiko jakingura areagotu zen nigan.

Estepa inorgabe eta bare zegoen gure inguruan. Eguerdiko eguzki amoltsua gure gainetik dirdirka ari zen. Aire puru eta suspergarria betebeteen sartzen zitzaigun ahoan eta urrutiko lurretarrantz gindoazen, itxura- eta kolore-anabasa handiz hodei-puskak pilatzen ziren leku eder hartarantz.

Herriko errepidera iritsi ginenean, txakurtxo bat hanketara atera zitzaigun eta gure inguruan bueltak ematen hasi zen, zaratatsu zaunka eginez. Begiratzen genionean azkar-azkar jauzten zuen alborantz, bala bezain lasterra, beldurraren beldurrez uluka. Gero, berriz ere oldartzen zitzaigun, are indar handiagoz zauka eginez. Beste kide batzuk ere agertu ziren, baina berotasunik bat

ere erakutsi gabe. Behin edo bitan zaunka egin eta berehala ezkutatu ziren, nik ez dakit non. Besteen axolarik ezak txakurtxoareago zirikatu zuela irudi zuen.

—Ikusten al duzu zelako aiurri gaiztoa duen? —galdetu zuen Promtoff-ek txakur leiala hatzaz erakutsiz—. Gezurretan ari da. Badaki zaunka aritzeko arazorik ez dagoela; gainera, ez da bihurria, koldarra baizik. Baina bere jabearen faboreak eskuratu nahi ditu. Oso ezaugarri gurea da hori... eta gizonak helarazi diola ez dago dudarik. Pertsonak animaliak alferrikaldu egiten dituzte. Laster, animaliak zu eta biok bezain koldarrak eta hipokritak izango diren garaia helduko da...

—Eskerrik asko —esan nuen.

—Ez horregatik. Eszenan sartzeko unea iritsi da...

Zeukan fisonomia mugikorrek halako begitarte goibela hartu zuen. Begirada ergeldu zitzaion, bizkarrak arku itxura hartu zion, ahalik eta gehien txikiagotu zen eta piltzarrak puztu zitzaizkion.

—Lagun hurkoarengana joan eta ogia eskatu behar diogu —esan zuen bere itxura-aldaketa azaltzeko; eta etxetxoetako leihoak arakatzen hasi zen jarraian.

Leihoetariko baten barlasaian emakume bat zegoen bere umeari titia ematen.

Promptoff-ek agur egin zion eta arrenka bezala esan zuen:

—Emakume zintzo horrek, eman ogi piska bat erromes gaixo hauei.

—Ez dut —erantzun zuen emakumeak, gu bioi mesfidantzaz begiratur.

—Bularra ahituko ahal zain, txakurkume halakoa! —hots egin zion nire lagunak zakar.

Emakumea oihuka hasi zen, ausiki egin izan baliote bezala, eta gure aurka oldartu zen.

—A, eskale madarikatua!

Promptoff-ek higitu gabe bere begi beltzekin begiratzeko zion, halako adur txarreko begirada zeukala. Emakumea zurbildu zen eta etxean sartu zen ez dakit zer marmaratur.

—Goazen? —esan nion Promptoff-i.

—Itxaron ogia ekartzen zigun arte.

—Senarra bidaliko du gure aurka igitaia eta guzti...

—Zuk ez duzu honetaz ulertzen —esan zuen giza otso hark irri eszeptiko batekin.

Arrazoi zuen: emakumea berriz azaldu zen ogi biribil baten erdiarekin eta koipe-puska handi batekin. Promtoff-i benazko diosala egin eta ahots errukariz esan zuen:

—Arren, onar ezazu honako hau, Jainkoaren izenean. Ez egon haserre.

—Jainkoak salba zaitzala begizkotik, sorginkeriatik eta sukarretik —ihardetsi zion Promtoff-ek iradokor.

Eta alde egin genuen.

—Aizu —esan nuen etxetik urrun egon ginenean—. Zein modu bitxia zurea... nolabait esateko... zuk diozuna eskatzeko.

—Modurik onena da. Emakume bati begietara begiratzen jakinez gero, sorgin edo aztizat hartzen gaitu, beldurtzen da eta ogia ezezik bere senarrarentzat prest dauzkan jaki guztiak ere emango dizkigu. Zergatik aritu eskean eta emakume horren aurrean umiliatu, agintzeko aukera izanik? Beti pentsatu izan dut hobe dela kentzea eskatzea baino. Noski, kentzeko aukerarik ez dagoenean, eskean aritu beste erremediorik ez dago.



—Eta ez zaizu inoiz gertatu ogiaren ordeztasotzea zera...?

—Ukabilkada? Ez. Ez ziratekeen ausartuko. Nik, anaitxo, zeregin magikoa dut... Nekazariari erakutsi orduko nire esklaboa bihurtzen dut... Ikusi nahi al duzu?

Paper zimur eta zikin bat eman zidan. Astrakan-etik Nicolaieff-era joateko baimena zen, Pablo Ignalief Promtoff-en izenean eta Petersburgo-n luzatua. Paperean Astrakan-eko Polizia-Zuzendaritzaren zigilua zeukan, eta baita zegozkion sinadurak ere. Den-dena zen arauzkoa.

—Ez dut ulertzen —esan nuen agiria bere jabeari itzuliz—. Zer dela-eta zatoz Astrakan-etik, San Petersburgo-tik egotzi bazaituzte?

Barrez hasi zen eta bere indar guztiekin erakutsi zidan nire gainean izan uste zuen nagusitasuna.

—Bada oso erraza da. Pentsa une batez Petersburgo-tik egotzi nautela eta egoztean askatasun osoa eman didatela, salbuespenik salbuespen, nik nahi dudan tokia bizilekutzat hartzeko. Esaterako, Kursk hiria aukeratzen dut. Kursk-era iritsi eta Poliziara jotzen dut: «Ohore handia da zuen aurrean aurkeztea e.a., e.a.» Kursk-eko Poliziak ezin du oso abegitsu jokatu nirekin, nahi baino buruhauste gehixegoa dituelako.

Gizagaldu baten aurrean daudela pentsatzen dute. Baina gizagaldu trebea dela ohartzen dira, hartaz ez baitute libratzerik izan ez indarrez ez legearen artikulua ezarri; aitzitik, administrazio-amarruez baliatu behar izan dira Petersburgo-tik kanporatzeko. Beraz, Polizia poz-pozik egongo litzateke, edozein tokitara ni bidalita (amildegi barrenera balitz ere). Dauzkaten trabak ikusita, nire laguntza eskaintzen diet apaltasun hutsez. Diot: «Nire bizilekua aukeratu dudanez, ez ote litzazueke gustatuko berriz ere aukeratuko banu?» Begitik galduko nautela ikusita txoratzen jartzen dira. Pertsonen eta jabetzen bortxaezintasunaz begiratzea helburu duten auzo-barrutitik joateko prest nagoela esaten diet hortaz, baina beharrezkoa dela nire amore ematearen truke biderako zer edo zer ematea. Bost errublo, hamar errublo eskaintzen dituzte gutxi gora-behera... Baina beti gustura ematen dituzte. Hobe da bost errublo galtzea, nire pertsonari datzekion elementu artegaz eta azal gainekoaz libratzeko bada, ez al da hala?

—Baliteke —esan nuen.

—Ez, seguraski. Eta pasaportearekin antzik bat ere ez daukan papertxoaz hornitzen naute. Paper horren eta pasaporte horren arteko aldean datza hain zuzen nire indar magikoa. Mundu honetan esaten da: «Petersburgo-tik ad-mi-nis-trati-bo-ki egotzia». Alkateari erakusten diot, oro har astoa baino ezjakinagoa izaten baita, eta ez du ezertxo ere ulertzen. Zigiluak ikusita beldurtu

egiten da. Esaten diot: «Paper honen arabera, gaua pasatzeko aterpea eskaini behar didazu.» Eta hala egiten du. Ezin du besterik egin «Petersburgotik administratiboki» papertxoan hala agertzen delako. Beharbada esan nahi du «bertara bidalita ikertzeko bertoko lantegien martxa, txanpon faltsuen fabrikazioa, distilazio klandestinoa, debekaturiko edarien salmenta». Edota eliza ortodoxoa zelako arduraz bisitatzeko zuen gutxi gora-behera edota lurrari dagokion edozer. Zeinek ulertuko du «Petersburgo-tik administratiboki» papertxoan jasotako ezer? Baliteke ni mozarroturiko pertsonaia izatea... Laboraria tontoa da... Zer ulertuko du hortaz?

—Bai, ez du ia ezer ulertzen —esan nuen.

—Eta oso zoriontsua da —aldarrikatu zuen Promtoff-ek ahots zoliz eta konbentzimendu handiz—. Hala izan behar du gainera; horregatik dira airea bezain beharrezkoak. Zeren, zer da «mujik-a<sup>1</sup>». Gizonontzat elikagaia bezalakoa da, hau da, abere jangarria da. Esaterako: posible izango al litzateke ni lur gainean bizi izatea mujik-ik gabe? Eguzkia, ura eta mujik-a ezinbestekoak dira gizakiaren existentziarako.

—Eta lurra?

---

<sup>1</sup> Mujik: nekazari errusiarra.

—Mujik-a bizi bada, lurra bizi izango da. Aski da esatea: «E, hi, sortezak lurra». Eta lurra sortuko da. Ezin dio-eta aginduari muzin egin.

## V

Ziniko alaiari gustatzen zitzaion gogoeta egitea. Herriska atzean utzi genuenetik denbora luzea joana zen eta etxalde ugarien aurretik igaro eta berriz ere beste herriska bat agertu zen gure aurrean udazkeneko hostail erdi jandakoaren artetik. Promptoff txoria bezain alaiki ari zen hizketan eta nik belarri egiten nion mujik-ari buruz pentsatuz eta laborariaren irudizko jabetza marraskatzen zuen bizkarroi-klase berriari buruz gogoeta eginez.

Noiz emango zaio mujik-ari zerbait ona, hain eskuzabalki eragin zaizkion txar guztietatik apurtxo bat sikiera konpentsatzeko? Horra nire ondotik hiriko bizimoduaren produktua den alferrontzi hauxe dabilela, mujik-aren bizkar bizi den eskale ziniko eta adimentsu hau; bere indar gordinaz ziurtasun osoa duen giza otso hau.

—Aizu —esan nion bat-batean zertzelada batez oroituz—. Zu eta biok zeinen egoera ezagutu garen kontuan harturik, dudan jarri beharra daukat zure zeregin horren benetako eraginkortasuna... Nolako azalpena duzu hortaz?

—Bai —ihardetsi zuen Promtoff-ek—. Oso erraza da. Ni lehendik ibilia naiz leku horretatik... Eta badakizu... Beti ez da gauza atsegina jendearen gogoan egotea...

Bere zabaltasuna ontzat eman nion. Egiatia izatea oso koalitate ona da beti eta tamalgarria da pertsonen artean gutxitan aurkitzea hori.

Nik zazpi belarrirekin entzuten nuen nire lagunaren hizketa trabarik gabea, berak agertzen zuen bezala zinez ote zen bereizi nahian.

—Horra herriska bat... Nahi al duzu zeure begiekin neurtu nire zereginaren indarra? — proposatu zuen Promtoff-ek.

Esperientziari uko egin eta zergatik erbesterratu zuten entzutea nahiagoko nukeela erantzun nion.

—O! Istorio luzea da —esan zuen eskua astinduz—. Baina egunen batean kontatuko dizut. Bien bitartean, har dezagun atsedean eta jan dezagun piska bat. Jangaiz ondotxo horniturik gaude. Beraz, ez daukagu herrira joan beharrik gure lagun hurkoa izorratzera.

Bidetik apurtxo bat urrundurik hasi ginen jaten. Gero, eguzki-izpi epelek eta haize-pufada arinek nagituta, luze etzan ginen lotara. Esna ginenean, eguzkia —itzela eta purpura-

kolorezkoa— zeruertzean zegoen ordurako, eta hego-ilunabarreko itzalak lautadan zehar hedatzen hasiak ziren.

—Ikusten duzunez —esan zuen Promtoffek—, patuak horko herriska eskaintzen digu gaua igarotzeko.

—Goazen bada —ihardetsi nuen.

—Ez izan beldurrik; gaurko gaua aterpean igaroko dugu-eta.

Arrazoi zuen. Aterpe eske joandako lehen etxean abegi ezin hobea egin ziguten.

Itxura baketsua zeukan eta erraldoia bezalakoa zen jabeak, soroak lantzetik itzuli berria zen. Artean emazteak afaria prestatzen ziharduen. Estantzia hartako bazter batean pilatuta, lau ume-moko zikinek begiratzen ziguten jakinminez eta mesfidati. Emakume sendoa gora eta behera zebilen, isilik, bizitasun handiz, sukaldetik estantziara, batzuetan ogia eta beste batzuetan esnea ekarriz. Gure parean aulki batean eseritako gizonak eskuak igurtzitzen zituen bere baitan bilduta eta noiz-behinka begirada aztertzaileak zuzentzen zizkigula. Luze gabe, ohizko galdera egin zigun:

—Nora zoazte?

—«Itsaso batetik bestera goaz, Kieff hirirako bidez», lagun —erantzun zion azkar Promptoff-ek, kanta zahar baten letra buruz errezitatuz.

—Zer duzue Kieff-en bada? —galdetu zuen gizonak gogoeta egin eta gero.

—Eta erlikia santuak, gero?

Gizonak Promptoff-i begiratu eta txu egin zuen ezer esan gabe.

Isilune baten ondoren, erantsi egin zuen:

—Eta nondik zatozte?

—Ni Petersburgo-tik, eta bera Mosku-tik —ihardetsi zion Promptoff-ek.

—Nondik? —galdetu zuen laborariak bekainak gaketuz—. Nolakoa da Petersburgo? Jendeak dio itsasoaren gainean eraikita dagoela eta egunen batean ur azpian geldituko dela.

Atea zabaldu eta beste bi laborari azaldu ziren.

—Hemen gauzkazu, Mikland —esan zuen haietariko batek.

—Zer nahi duzue?

—Tratutan gatoz zigana. Nortzuk dira hauek?

—Hauek? —galdetu zuen jabeak buruaz gu erakutsiz.

—Bai.

Gizona isilik gelditu zen, gogoeta egin zuen eta poliki-poliki burua itzuliz esan zuen:

—Nik ba ote dakit bada?

—Erromesak al zarete? —galde egin ziguten.

—Bai —erantzun zuen Promtoff-ek.

Eta isilune luzea jarraitu zuen; eta hiru gizonok temaz, mesfidantzaz eta jakinguraz guri begiratzeko baliatu ziren une hartaz... Azkenik, denak mahai inguruan eseri eta gogo-bai-gogoz jaten hasi ziren.

—Agian zuetako batek jakingo du irakurtzen eta idazten —galdetu zuen laborarietarikoa batek Promtoff-i zuzentzen zela.

—Biok —erantzun zuen hizlabur.



—Orduan jakingo duzue zer komeni zaion atsekabe handiak eta bizkarreko min gogorrak dituen gizonari, gauez lo egiterik ez du-eta.

—Badakigu, bai —erantzun zion Promptoff-ek.

—Eta...?

Promptoff-ek eskuak garbitu zituen bere zarpailpekin; gero, sabai aldera pentsakor begiratu eta azkenik ahots sendoz eta ia-ia gogorrez esan zuen:

—Asunak bildu, gaixoaren emazteari horiekin bizkarrezurra igurtzeko agindu, eta kalamu gatzez eginiko oloioaz gogortu bizkar gainean... Besterik ez.

—Eta horrek zer egingo dio? —galdetu zion laborariak.

—Ez du ezertxo ere egingo —esan zuen Promptoff-ek, sorbaldak jasoz.

—Ezer ez?

—Ezertxo ere ez.

—Baina arintzen al du mina?

—Bai, arintzen du.

—Proba egingo dut... Eskerrik asko.

—Ez horregatik —esan zuen Promtoff-ek serio-serio.

Ondoren, isilune luzea egin zen. Matrailezurrek ateratako zarata eta euren artean txutxu-mutxuka aritzen ziren umeena besterik ez zen entzuten.

—Aizu —esan zuen etxeko nagusiak—, horrela denez gero, ezin izango al zenidake esan Petersburgo-n edo Mosku-n zerbait entzun duzun Siberiara emigratzerik ba ote dagoen?... Gutako batek gezurra esan zuen edo egia esan zuen —deabruak al daki!—. Kontua guztiz ezinezkoa zelakoan nengoen.

—Ezinezkoa da, bai —baieztu zuen ausartkeriaz Promtoff-ek.

Laboraiek elkarri begiratu eta negusiak hortz artetik marmar egin zuen:

—Apoak tripa barrenean sartuko ahal zaizkie!

—Ezinezkoa da —baieztu zuen berriro Promtoff-ek, eta bat-batean begitartea argitu-edo egin zitzaion—. Eta ezinezkoa da Siberiara joateak

merezi ez duelako, leku guztietan lurra oso ugaria denez gero.

—Bai, hori egia da. Leku guztientzat lur nahikoa dago hildakoentzat... Baina eskas da bizi garenontzat —aitortu zuen tristuraz laborarietako batek.

—Petersburgo-n zera erabaki dute —erantsi zuen benazkotasunez Promtoff-ek—, lur guztia (bai laborariena bai lur-jabeena) Koroaren esku geratzea.

Laboraiek birada basatia bihurtu zioten elkarri. Ez zuten ezer esan baina. Promtoff-ek serio begiratu zien eta aurrera jarraitu zuen:

—Koroaren esku geratuko da. Eta ba al dakizue zergatik?

Isiltasuna erabatekoa zen eta laborari gaixoak bazirudien lehertzeko zorian zeudela, miretsita eta gehiago jakin nahian.

Nik beha egiten nien eta ozta ezkuta nezakeen barrutik sentitzen nuen haserrea, Promtoff-ek jende onbera horiei burla egiten baitzien, noski. Baina gezurrak agerian uzteak jipoia ekar diezaiokeen. Beraz, txintik ez nuen esaten, kontu ergelak jota.

—Hitz egin, lagun —esan zuen samur eta herabe laborarietako batek, hunkipena zela-eta ia-ia itota.

—Koroaren esku geratuko da lur osoa, nekazari guztien artean banatuko baitute aurrerago. Azkenik, ontzat eman dute —Promtoff-ek erakunde baten izena aipatu zuen— lurraren benetako jabea nekazaria dela, eta debekatu dute jendea Siberiara joatea banaketan parte hartzera.

Laborarietako batek eskuan zeukan ogi-puska erortzen utzi zuen.

Denok ginen Promtoff-en ezpainenatik zer aterako zain, harri eta zur, albiste miresgarria zela-eta. Bat-batean lau hots handi entzun ziren batera.

—Ama Birjina gurea! —zizpuratu zuen emakumeak.

—Gezurretan al zabilta?

—Gezurretan ni?

—Bikaina istorioa —esan nuen—. Baina esamesa izango da.

Promtoff-ek zinezko harriduraz begiratu zidan eta esan zuen kemen handiz:

—Zurumurrua? Esamesak?

Eta ezpainenatik gezurrik lotsagabeena jaulgi zitzaion melodia balitzen, entzule guztiontzat soinurik ederrena balitz bezala, niretzat izan ezik. Bazekien gauza jostagarriak asmatzen. Sinetsi nahi zioten nekazariak aho zabalik entzuten zioten. Hala eta guztiz ere, etorkizunean zoritxarrak ekar liezaizkigukeen iradokimen handiko gezur horiek guztiak entzutea gogorra egiten zitzaidan.

## VI

Etxetik atera eta lurrean etzan nintzen, etxartean alegia, nire lagun zitalaren gezurrak agerian uzteko metodoari buruz gogoeta eginez. Haren ahotsak luzaro durunditu zuen nire belarrietan. Gero, lotan geratu nintzen.

Eguna urratzean, Promptoff-ek esnatu ninduen.

—Jaiki eta goazen hemendik —esan zuen.

Haren ondoan etxeko nagusia zegoen, logure eginda, eta Promptoff-en jaki-zorroa mukuru zegoen. Agur esan genion eta alde egin genuen. Promptoff pozik zegoen, kantuka eta txistuka zihoan, eta zirtolari begiratzen zidan, soslai. Nik, zuzendu nahi nion erretolikaz pentsatzen nuen eta isilik nindoan, haren eskubitik zango luzean ibiliz.

—Eta zer, noiz hasi behar duzu ni gaitzesten? —galdetu zuen bat-batean.

—Merezi duzula aitortzen al duzu? —  
ihardetsi nion lehor.

—Jakina... Ulertzen zaitut eta badakit sermoia botako didazula. Baina nekazariak amets piska bat egitea txarra ote da? Horrek ez ditu adimentsuagoak egingo. Eta nik zerbait irabazten dut. Begira, zorroa ederki bete dut.

—Bai. Baina zure erruz, baliteke jipoi bat edo beste hartzea.

—Ez dut uste... Dena den, hala gertatuta ere, zer axola niri besteen saihetsezurrek? Nik Jainkoari otoitz egiten diot, nireak sano gorde ditzan. Noski, hor moral eskasa dago. Baina, berriz diot, zer axola niri morala izateak ala ez? Ados egongo zara nirekin, kontua ez doakidala niri.

—Zer egin? —pentsatu nuen—. Otsoak arrazoi du-eta.

—Demagun nire erruz sufritzen dutela. Hala eta guztiz ere, zeruak urdina eta itsasoak gazia izaten jarraituko dute...

—Baina ba ote da posible urrikia zer den erabat ezjakina izatea?

—Nor da nitaz urriki, gero? Ni soro batetik bestera nabil. Eta haizeak eramanda topatzen ditudan guztiek ostikoka bidaltzen naute...

Serio zegoen. Barneraturiko halako haserre batek begitarte osoa jartzen zion atezuan. Mendeku-goseak dir-dir egiten zion begietan.

—Nik beti hala jokutzen dut, eta zenbaitetan are okerrago. Saratoff lurraldean, esaterako, sabelatik gaixo zegoen nekazari bati zera aholkatu nion, olibondoaz eta bipiz eginiko edabea hartzea... zekena zelako. Zenbat ekintza bihurri eta barregarri egin ditudan nire joan-etorrietan! Zenbat amets ustel eta zenbat sineskeria ergel sarrarazi ditudan nekazarien kontzepzio moraletan! Eta ez zait damu. Zergatik? Zeintzuk arautan oinarrituta? Nigan dagozkeen arauak dira bakarrak. Horra nire iritzia eta Pello Mihi-Luzek ere halaxe dio nonbait, ez dut gogoratzen non.

—Dena den, zutaz halako mirespena izatea ere...

—Gaizki dago, noski, zure ikuspuntutik. Baina ba al dakizu gauza bat? Nik ez ditut gogoko ikuspuntu zuzenak, eta zartailuaz kolpatzen banaute, makilaz erantzuteko eskubidea dudalakoan nago.

Entzuten nion bitartean zuhur irizten nion nire aldetik David erregearen salmoa gogora

ekartzeari, eta bekatari handi horren bidetik alde egin. Baina haren istorioa ezagutzeko irrikan nengoen.

Hiru egun igaro nituen berarekin eta ordurako susmatzen hasita neuzkan hainbat kontu garbi gaino garbiago ikusi ahal izan nituen. Berehala ohartu nintzen Promtoff-ek alferrikako objektu piloak zeukala, besteak beste: kobrezko argimutilla, kafea ehotzeko tresna, farfail-zatiak, lepokoak... Konturatu nintzen larru-azala arriskuan neukala eta Promtoff-en klasekoak bezain baxu erortzeko perilean nengoela. Harengandik urrundu behar nuen... Baina haren istorioa...

Eta halako egun batean, haizeak basati ibilera eragozten zigula eta hotzetik aterpetzeko meta handi batean babestu ginela, Promtoff-ek bere bizitzaren berri eman zidan...

## VII

—Beno bada... kontatzera noakizu... Erabil ezazu ondo nire kontaketa eta ea balio dizun irakasgarri gisa...

Nire aitarengandik hasiko naiz. Gizon serio eta elizkoia zen. Hirurogei urterekin erretiro-sari ona lortu zuen. Beraz, probintzia bateko hiriburura joan zen begetatzera, han etxe eroso eta zabala erosi zuen-eta.



Gure ama emakume aparta zen, maitagarri eta ezitsua erabat. Hala ere, aiurritz sumendia bezalakoa zen —hori dela eta, ez dut oso garbi ikusten nire aitaren aldetik dagokidan jatorria zein den, eta izan ere nire susmoak ditut nire leinuaren gainean.

Aitak ez zidan maitasunik bat ere eta bihurrikeriarik txikienagatik belauniko jarrarazi eta jipoi ederrak ematen zizkidan.

Amak, ordea, adoratzen ninduen eta ezin hobeto konpontzen ginen biok. Beti izaten zuen «bihotzeko adiskideren bat», eta harekin gutunak trukatzeko zituen, ni bitartekari nindukatelarik. Eta puntu horren gainean, ematen nizkien zerbitzuen truke sari politikak jasotzen nituen, haren jarraitzaileak eskuzabalak izan ohi baitziren, eta baita bera ere, nire zuhertasun eta fintasuna ederki eskertzen zekien-eta.

Aitak aginduta, ikastetxe batean sartu nintzen. Baina bota egin ninduten handik gutxira, katedratikoak nahastu izanaren akusaziopean: lezioak maisuarekin jaso beharrean, ikuskatzailearen neskamearekin jaso nituen-eta. Aipaturiko funtzionarioa minduta utzi nuenez, bota egin ninduen, azaldu dudana legez.

Etxean aurkeztu nintzenean, aitari jakinari nion, ezen, ikuskatzailearen eta bion arteko gaizki-

ulertzea dela-eta, jakituriaren tenplutik bidali ninduela. Zoritxarrez, ikuskatzaile malapartatu hark ordurako gutun bat idatzi zion nire aitari, gertaeren berri emanez. Edonola ere, ezin izan nuen ondorioztatu siniestroaren tokian bertan harrapatu ninduela esaten zionik, hau da, neskamearen logelan, bertara sartu baitzen gau hartan, nire presentziaz ezjakin, lo egiteko alkandora besterik janzen ez zuela, eta ahots samurrez esanez, ahapeka:

—Ene usotxo politte...

Gainerakoan, haren kontura joan zen.

Aitak ni ikusi orduko, irainez bete ninduen eta apostrofe askotxe zuzendu zizkidan. Amak ere errieta egin zidan, eta ni Pskoff-era bidaltzea erabaki zuten, nire aitaren anaia bat bertan bizi zen-eta.

Pskoff-en ohartu nintzenez, nire osaba ergela eta haserrekorra zen, eta nire lehengusinak aski politak ziren. Hortaz, nahiko bizimodu atsegina igarri nion nire buruari.

Tamalez, Pskoff nire bizitzaren erdia izatetik urrun zegoen: hiru hilabeteren buruan, osabak kale gorrira bidali ninduen, bertan nintzelakoan eta bere alaben gainean eragin kaltegarria nuelakoan.

Inrain berriak jasan nituen, eta oraingoan landara igorri ninduten, Riazan lurraldera, izeba baten etxera.

Nire izeba pertsona txit atsegin eta komunikakorra zen, eta oso gogoko zitzaion etxean jende gazte ugari hartzea. Garai hartan, berriz, ia denek zeukaten liburu debekatuak irakurtzeko mania ergela. Nik imitatu nituen. Orduan, han gertatzen ari zenaz polizia jabetu eta salaketa sekretu bat dela-medio ni akusatu ninduten halako liburuak eduki eta besteei uzteaz. Beraz, ni atxilotu, auziperatu eta kartzeleratu ninduten, lau hilabeteko denboraldiaz. Amak gutun bat bidali zidan, haren heriotzaren erruduna izango nintzela esanez; eta aitak bera lohitzea aurpegiratu zidan... Gogoeta egin nuen zeinen gogaikarriak ziren gurasoak oro har, eta batik-bat nireak.

Ez al duzu uste, lagun, gurasoak izateko gaurko prozeduraren ordeztu hobe izango litzatekeela gurasoak hautatzeko aukera izatea?... Tira, bada; jarrai dezagun.

Kartzelatik atera nintzenean, Nijni-Novgorod-era joan nintzen, bertan bizi baitzen nire arreba bat. Baina ezkondurik eta seme-alabaz txit zamaturik zegoen eta beti ibiltzen zen biziki haserraturik. Zer egin? Feriak salbatu ninduen eta korukide moduan estreinatu nintzen. Eta ahots ederra eta gorpuzkera atsegina nituenez, bakarlarari «izendatu ninduten», eta abesten hasi nintzen...

Orduan, edateari ekin niola pentsatuko duzu, nire klaseko «artista» gehienen artean ohitura den bezala. Baina zinez tronpatuko zinateke, halakorik uste izango bazenu. Ni ez naiz sekula mozkortia izan.

Lehenbailehen utzi nahi dut, gainera, argi eta garbi ezen mozkortzekotan ardo onak baino ez nituzkeela erabiliko..., *champagnea* esaterako. Emadazu «Marsala» erruz edateko, eta laster ikusiko nazu konortea galduta, emakumeak adina gustatzen zaidalako.

Bai, emakumeak txoro-txoro gustatzen zaizkit... eta beharbada gorroto ditut... Desira erreprimigaitza sentitzen dut haiekin gaizki jokatzeke. Ea ulertzen didazun, ez diet ez lotsarik ez kalterik nahi, baina bai bizitzak adina iraungo dien oroitzapen txarra.

Zergatik naizen horren gaiztoa emakumeekin? Ez dakit eta zeharo ezgauza naiz hori azaltzeko... Beti tratatu naute ondo, ederra eta ausarta nintzelako...

Dena den, zeinen ele-zuri, gizatxar eta faltsuak diren bihotz-barrenean... Negar eragin nahi diet, haien malkoak ikusi eta haien kexak aditzen ditudanean, zera pentsatzen baitut nire kasa:

—Emakume hau sufritzen ari duk orain; baina luzaro gabe, hi sufriaraziko hau.

Gauzak horrela, abesten hasi nintzen; eta nire bizitza oldarrez eta alai zihoan aurrera.

Egun batean, bizar barbana zuen gizon bat hurbildu zitzaidan eta galde egin zidan:

—Gustatuko litzazuke eszenategian nabarmentzea?

Nik etxean hainbat komedia antzeztuta neuzkan.

—Antzespen komikoak egin nahi al dituzu hilean 25 errubloren truke?

—Bai, nahi dut.

Orduan Perum-era eramán ninduen; han, abeslaria eta aktorea izan nintzen. Mutil gazte beltzaran eta liraina izanik, eta hiltzaile politikoa ba omen nintzenez, emakume guztiak txoratzen ziren nirekin. Bigarren galai-paperak eman zizkidaten beraz, eta erantsi zuten zera:

—Hasi protagonista-paperak entseiatzen.

«Argi-txakurrak» obrako Max-arekin estreinatu nintzen eta gau hartan txalo bero-beroak jaso nituen, tontorrean egongo banintz bezala...

Udaberri osoa lan egin nuen han, eta udan bira polita antolatu zuten Vialtko, Ufa eta Elaburgerraino. Gero, Perum-era itzuli ginen negua igarotzera.

Laster, publikoarekiko nazka eta higuina sentitzen hasi nintzen. Eszenatokira ateratzen nintzenean eta nire hitzak eta mugimenduak fiskalizatzen zituzten tontolapiko eta alproja haiek guztiak ikusten nituenean, haserririk eta higuinik handienak jabetzen ziren nitaz. Iruditzen zitzaidan haien jostailua nintzela, gau batez jostatzeko erositako objektua izango banintz bezala. Iritzi eta txalo egiteko orduan, eurak dira epaile bakarrak. Zer moduz jokatzeko duen jakiteko goitik behera aztertzen zaituzte, eta lana euren gustukoa izanez gero, oihuka eta txaloka hasten dira, eta aktoreak gogoko dituzte horrelako onspen-erakustaldiak... Hasieran, aktoreari ahazten zaio bera besteen jabetza dela. Aurrerago, ordea, gogora dakarkio egia, eta zaplastekoak emango lizkioke bere buruari, txalo haietan gozamina bilatu izanagatik.

Horrenbesteraingo higitzen ninduten ikusleek, ezen, batzuetan, eszenaren erdi-erdian, dardara batean jartzen nintzen eta txua eta irainik zakarrenak haien aurka jaurkitzeko ideia pasatzen zitzaidan burutik. Batzuetan, beren begiak orratzak bezain mingarriak kausitzen nituen, eta nagusiaren izpiritu berberaz, ikusleek konfiantza erakusten zuten nigan, zirrikada gozoak eragingo

nizkielakoan. Banekien nitaz zer nahi zuten, eta ondo zorrozitutako haiztoa eskuarekin oratu eta biziki desiratzen nuen lehen lerroko ikusle guztien sudurrak brauz moztea... Deabruak eraman ditzan denak!

Zaude, lirismoaren aldapan behera arrastrapen hasi naizela ikusten dut-eta... Beraz, antzespenak egiten nituen, publikoa gorrotatzen nuen eta urrun ihes egitea amesten nuen. Auzitegiko fiskal jaunaren emazteak erraztu zidan ihesa. Andere honek nitaz zaletzeko gustu ona eta ideia txarra izan zituen. Nik ez nion kasurik egiten eta orduan, mendekatzeko, bere senarra jarri zuen dantzan... Hiritik bota ninduten eta nire hezurak Sarausk-en amaitu ziren.

## VIII

Nire lankideak aurrera jarraitu zuen:

—Sarausk hirira heldu nintzen, merkataritzako gazte perusiar baten emaztea lagun nuela. Neskato bipila eta nire arteaz maitemindurikoa zen. Maitasun eta adiskidetasun onean bizi izatea erabaki genuen. Baina dirurik ez genuenez, ezta harremanik ere, denbora luze iruditzen hasi zitzaidan eta berari niri baino luzeago ere bai.

Haren kexak jasan nituen, hasieran; baina handik gutxira, zeharo aspertu eta esan nion:

—Tira, bada. Hoa infernura.

—Infernura? —oihukatu zuen.

Eta errebolberra ateraz, nire aurka tiro egin eta bala bat sartu zidan ezkerreko sorbaldan.

Beheraxeago asmatu izan balu, aspalditik egongo nintzateke justuen egoitzan.

Esan beharrik ez dago zauriturik utzi ninduela.

Erantsi zuen, halere, barrutik oso neskato zintzoa zela, eta unean bertan damu izan zitzaiola egindakoa. Baina halako sustoa hartu zuen, ezen, bere burua jaurki baitzuen putzu batera. Hainbeste busti izan zen, ezen, gaxoa hil zen.

Ospitale batera eraman ninduten. Pentsatzekoa denez, hainbat andere etorri zitzaizkidan bisitan. Maitasun-kontu hauek andereñoak noiz ez ote ditu txoro-txoro egin? Arta ezin handiagok zaindu ninduten zeharo osaturik ikusi ninduten arte, eta jaiki nintzenean, izendapen bitxia jaso nuen haien ekimenez eta eraginez: «Poliziako idazkari». Egia esan, askoz hobe da erakunde horretako kidea izatea, horren zaintza eta jagoletzapean egotea baino... Halaxe bizi izan



nintzen hilabetez, bi hilabetez, baita hiru hilabetez ere...

Orduko hartan eta nire bizitzako lehenengo aldiz, aspertasun-atake baten depresio ikaragarria nozitu nuen. Inguruan neukan guztiak asper-asper uzten ninduen eta mota guztietako berritasunak irrikatzen nituen. Minutuero norabidez aldatzen nintzen, nire idealak aurkitu-uste izanik, nire desirarekin bat zetorkeen ezer ez zegoela harik eta argi eta garbi ulertu nuen arte... Neukan inpresio bakarra zen zerbait ezezagunaren gatibua nintzela, barrutik pot eginda nengoela, nirekin bakean ez nengoela... Bakea edaten dugun ura bezain beharrezkoa zaigu-eta.

Egoera jasangaitza zinez. Hura gainditu nahiz, ezkontzeko erabaki muturrekoa hartu nuen.. Nire izaera ezagututa, «spleen»aren edo hordikeriaren eraginpean nengoela beste azalpenik ez nuen aurkitu.

«Pope» baten alabarekin ezkondu nintzen. Aita arestian hil zitzaionez, bakarrik bizi zen bere amarekin, erabateko askatasunean.

Aski egokitzen zitzaizkidan bi gauza zeuzkan: etxe bikaina eta diru mordoa.

Horrez gainera, polita zen, begitare interesgarria zuen eta izaeraz alai samarra zen.

Zoritxarrez, mania bakarra zuen: irakurtzea. Eta horrek kalte egin zigun bai berari bai bioi.

Behin eta berriz, izaera sozialeko esaerak ateratzen zituen liburuetatik, eta horien balioa eta transzendentziaz gogoeta egiten zuen nirekin.

Aipatu beharrekoa da ezen txikitandik jasangaitzenik izan ditudan gauzetariko bat sermoiak direla.

Beraz, hor hasi nintzen nire andreak trufatzen eta azkenik bere sermoiei buruz entzuten nion bakoitzean erraiak goitikitzen zitzaizkidan, nazka-nazka eginda...

Irakurketetatik ateratako teoriak zirela eta, handikiaren eta harroputzarena egiten ikusten nuen bera. Eta nire aburuz hori oso gaizki egokitzen zitzaionez, hasieran desadostasunak eta amaieran kalapitak piztu ziren gure artean...

Nekaturik, azkenik, desadostasun eta liskar horiez guztiez, «pope» parrandazale, musikari, abeslari, dantza nazionaleko irakasle apart eta ardo-dastatzaile handi batekin adiskidetu nintzen.

Lagun berria inguruotako gizonezko jostariena bezala azaltzen zitzaidan begitan; beraz, hori dela-eta andreak ni irainez betetzeari ekin zion, eta bere gizartera erakarri nahi izan ninduen osterara ere, fariseoz eta erudituz osaturik baitzen.

Gau-gauero joaten zitzaizkion bisitan ez-nolanahiko pertsonak, hiriko gizasemerik «onenak», berak hitz horiekin deskribatzen zituen-eta, niretzat urkatuaren benezkotasun berbera zutela iruditzen bazitzaidan ere.

Argi gera bedi niri ere irakurtzea gustatzen zitzaidala, baina nire bizimoduari konplikazio eta okerbiderik sortu gabe.

Nire emaztea eta bere laguntxoek liburu bat irakurtzen zutenean, zirrara bizi-bizia eragiten zien.

Nire dibisa guztiz alderantzizkoa zen.

Liburu bat? Ondo. Interesgarria al da? Hainbat hobe. Baina liburu ororen egilea besteak bezalako gizona da. Ez dago libururik ondoko helburuari erantzuten ez dionik: ona ona dela eta txarra txarra dela frogatzea. Egia esan, «popea» izan zen aspertasunetik salbatu ninduen, eta bera gabe aspalditik ihes egingo nukeen etxetik. Normalean, fariseoak eta jakintsuak heldu orduko, ni «popearen» bila joaten nintzen.

Halakoxea izan zen nire bizitza urtebetez. Nitaz nagusitutako aspertasuna arintzeko, «popeari» meza ematen laguntzen hasi nintzaion. Batzuetan koruan abesten nuen, eta beste batzuetan «postoluen Egintzak» irakurtzen nizkien fededunei.

Hainbeste ergelkeria jasan nituen nire bizitzako garai hartan, ezen, azken Judizioko Egunean aintzat hartuko didatela zalantzarik ez dudan.

Halako batean, iloba bat —neskatxa artean— heldu zen «popearen» etxera, hara deitu zioten popea alarguna zelako eta txerriek erdi jan zutelako. Ea ulertzen didazun, ez zuten guztiz irentsi, baina irudia alferrikaldu zioten.

Nola gertatu zen azalduko dizut. Mozkorturik zegoen batean, txerritegian lotan erori eta bertan zeuden txerriek belarri bat eta lepoaren zati on bat eta matrailezurretako bat jan zizkioten. Badakizu txerriek aurkitzen duten lehen gauza jaten dutela.

Gaixotu zen, bada, nire «pope» onbera eta ilobari deitu zion bera zain zezan. Berehala egin nion amodioa neska gazteari.

Laster bera eta biok ardura handiz heldu genion obra eskergari, ia eztabaidarik gabe arrakastarik handiena lortuz.

Handik gutxira nire emaztearen belarrira heldu zen gure obra zertan zen, eta ez dizut aipatuko nolako haserre bizia hartu zuen. Gutxiago ez izateagatik, neu ere haserratu nintzen; baina berak oihu egin zidan:

—Hoa nire etxetik!

Luzez gogoeta egin eta gero, etxetik joan nintzen, bai, eta baita herriskatik ere.

Hortaz, tankera horretan hautsi nituen ezkontzarekiko loturak, eta nire emaztea oraindik bizirik badago, ziur nago planetatik ere alde egin nuelako uste sendoa daukala. Hura berriz ikusteko gogorik ez baiuen izan hartaz geroztik... Arauzko ezkongagia lortuko zuelakoan nago. Bego Jainkoa harekin. Nahikoa izorratu ninduen-eta.

## IX

Ostera ere askea nintzelarik, Perusa aldera abiatu nintzen. Poliziara jo nuen; niretzako ez zeukaten lanposturik; ezkerretik eskubira aritu nintzen lan eske. Ezer ez inon ez. Borrokatzeaz nekaturik, eliza batean sartu nintzen txantre gisa. Baina berriz ere publiko ergelarekin egin nuen topo, eta lehengo lanbidea bertan behera uztera bulkatu ninduen nazka bera sentitu nuen beste behin. Irabaziak zinez miserableak ziren. Posizio hartan ez nintzen nire buruaren jabe. Emakume salerosle batek atera ninduen ataka gaizto hartatik. Emakume lodi eta jainkozalea zen, eta oso bizitza tristea zeraman. Erlijio-gaiei buruz nituen ezaupideei esker interesatu zen nitaz. Beraz, bere etxera bisitan joaten hasi nintzaion eta mahai oparoa aurkitu nuen han. Haren senarra zoroetxe

batean zegoen giltzapean eta bera bakarrik arduratzen zen irin-lantegi handi bat zuzentzeaz. Gauza horien berri jakin nuenean, losintxa batzuk egin nizkion zuhur.

—Lan handia daukan, Sekletea Kirillovna —halaxe deitzen baitzen.

—Bai —esan zuen berak.

—Har nazan laguntzaile gisa.

—Engainatuko nauk —esan zuen berak.

Eta, noski, nire eskaintza onartu zuen.

Oso ondo bizi nintzen nire iringilearekin, baina hiria jasangaitza zen. Ez zegoen antzokirik ez hotel onik ez jende interesgarririk. Aspertzen hasita nengoen. Eta gehiago agoantatzerik izan ez nuenean, nire osabari idatzi nion, esanez, Petersburgo-tik kanpo igarotako bost urteotan zentzudunagoa bilakatu nintzela. Barkamena ere eskatzen nion egindako okerrenatik eta zentzatuko nintzatekeela hitz eman ondoren, Petersburgo-ra bizi izatera joaten utziko zidala galde egin nion.

Nire osabak erantzun zidan ezen neurri batzuk harturik ez zuela arriskurik ikusten. Orduan, nire iringileari agur esan nion.

Jakizu emakume ergel, gizen, indartsu eta itsusia zela.

Maitale eder, dotore eta adimentsuak izan ditut... Bai, baina modu txarrean utzi nituen beti, edota erdeinuz eta gaiztotasunez esaten nien agur, edo bestela eurak ziren nirekin gaizki jokatzeko zutenak.

Stkletea delako hark, ordea, errespetua eragin zidan soilik bere apaltasunagatik. Esan nion: Agur.

—Agur —erantzun zidan—, agur, ene maitea. Jainkoak zorionsua egingo ahal hau.

—Ez zain damu ni joatea?

—Nola ez zait bada damu izango halako mutil lirain eta azkarra galtzea? Nik ez niake inoiz joaten utziko. Baina hala izan behar dik, ulertzen diat. Txori askea haiz... Hegan egin Jainkoaren mesederako.

Eta garratz egin zuen negar.

—Barka nazan, Sekletea —esan nuen—. Barka nazan.

—Zer diok? Barkatu baino, eskerrak eman beharrean nagok hirekin.

—Zergatik eskerrak?

—Zergatik? Bada gizon zintzoa haizelako... Ni miserian hondatzen erraz lortuko hukeen; hire menpe nengoan. Zerk eragozten zian ni ezer gabe uztea hobekien zeritzon moduan? Nik ez, eta ondotxo dakik... Eta ohore guztiekin joango haiz... Nik bazekiat zenbat diru pilatu duan azken garaiotan, lau mila errublo inguru. Beste batek haragia ezezik erretegia ere jango zituzkean hire tokian. —Horra zer esan zidan. Hura bai emakume aparta!

Harenganako            begirunez            beterik,  
samurtasunez besarkatu eta agur esan nion.

Petersburgo-ra heldu nintzen bihotz-alai eta sakelean bost mila errublo nituela (Sekletea-k ez baitzuen ondo zenbatu).

Handikien modura bizi izan nintzen; antzokietara joaten nintzen; jendea ezagutzen nuen; jokoan aritzen nintzen.

Jokoa denbora-pasarik nazkagarrietariko bat da. Joko-mahaiaren aurrean eseri eta gau bakarrean hamar alditan hil eta berpizten zara. Gauza tamalgarria bada, jakitea, hurrengo minutuak azken errubloa kenduko dizula, eta errekarra jo duzula, ezer gabe, beharturik lapurtzera edo kaskezurra tiroz lehertzera, ezin atseginagoa ere bada, jakitea, zure auzoko edo lehiakideak ere,



azken errubloari dagokionez, sentsazio berberak esperimentatuko dituela, aurreko liparrean nahasten gintuzten sentsazio berberak alegia. Aurpegi itsusiak ikustea, emozioa dela-eta gorri-gorriak edo zurbil-zurbilak, diru-galeraren aurrean izuaren izuaz dardarka, irabazteko aukera dela-eta irrikitsuak, begitarte horiei guztioei begiratzea eta tinko behatzen dituzten naipeak bata bestearen atzean hartzen ikustea... A!, horrek guztiak zainak eta odola jartzen ditu irakitan... Badirudi jokalaria bere karta eskuratzen duenean zainak eta odola dituen haragi-zati taupakari bat erauzten zaiola... Gozo-gozoa. Baskula-jolas etengabe hori bizitzako gauzarik onena da... Horra zer esan zuen gure olerkarietako batek:

«Plazera dago borrokan eta amildegia ilunaren ertzean...» Bai, halako gozamina dago hor, eta oro har, zinez ez zaigu iruditzen bizi garela zerbait arriskuan jartzen dugunean baino.

Zuk ba al dakizu zer den gose izatea? Gertatu izan zait berrogeita zortzi orduz ezer ez jatea..., eta sabela nozitzen hasten denean, erraiak lehortzen ari zaizkizulako inpresioa daukazunean, ogi-puska baten truke gizon bat eta areago ume bat hiltzeko prest zaudela ohartzen zarenean... edozertarako gai zara...

Badago halako poesia berezi bat hilketarekiko jaidura horretan. Oso sentsazio

berezia da, eta halako eskarmentuaren ondoren, iritzi hobea duzu zure buruaz.

## X

Jarrai dezagun aurrera gure kontakizun malapartatuarekin: badirudi hileta-segizioa dela, eta ni hildakoaren lekuan nagoela. Litekeena da. Zelako gonparazio ergela bururatu zaidan! Eta, hala ere, bidezkoa da, hortaz ezer hoberik ez izan arren... Idazle jakin batengan oso esapide zuzen eta egiazkoa aurkitzen dugu: «Egintza bezain ergela da.» Ergela al da? Ederki bada, ez du axolarik. Zeren ba ote dut nik zerikusirik ergelaren eta adimentsuaren artekoarekin?

Horrela bada, Petersburgo-n bizi nintzen. Hiri ona da, baina hobe litzateke herritarren erdia itoko bagenu inguruotan orroaka dabilen itsaso zikinean. Gizonari dagozkion ekintza ugarien artean bizi nintzen buru eta bihotz. Emakume baten gustukoena izan nintzen eta mantendu nahi ninduen...

Ez duzu inoiz emakumeen bizkar bizi izan? Egizu aproba. Interesgarria da —zeren aldi berean baitzara zure andrearen jopua eta subiranoa—. Jostailua bazina bezala erosi zaituzte, baina zeu zara zure eroslearekin jostetan aritzen dena.

Eroslea zure menpe dago eta oso barregarria den egoeran; izan ere, zuk beti egin dezakezu sonbrerua izan nahi duen zapataren papera eta buruan jartzeko exigitzea. Holaxe bizi izan nintzen bizpahiru urtetan. Ondo zihoan dena, alaitasunez alegia, opereta moduko abentura gertatu zen arte.

Egun batean, oso atsegina zen gizon bat heldu zen nire etxera. Tamalez, kontu politiko itsusi batean nahasturik zebilen —nik baneukan eskarmentua antzeko kontu batengatik—. Etorri zen eta esan zidan:

—Lortu iezadazu pasaporte bat.

—Norentzat?

—Neska gazte beltzaren batentzat. Hogei bat urte ditu, ez altua ez baxua, helbide berezirik gabe.

—Zergatik?

—Gizon faltsu batekin ezkondu nahi dudalako.

Zer egin? Dударik gabe txantxa zen, eta nire maitaleak hain zuzen bazuen azaldutako ezaugarriekin guztiz bat zetorren neskame bat.

Haren pasaporte hartu eta berritsuari eman nion...

Beno bada... Kontu haren berririk ez nuen izan denbora luze-luzea igaro arte.

Bat-batean bi polizia agertu ziren, eta esan zidaten:

—Zatoz.

Esana egiten diet. Ile griseko eta fisionomia gogorreko pertsonaia batek galde egiten dit:

—Pasaporte bat lortu al diozu urlia andereñoari?

—Bai, egia da. Ez nekien, ordea, andereño horrentzakoa zen. Izan ere, nire lagunari ahaztu omen zitzaion andereño horrentzakoa hain zuzen zela esatea.

Pertsonaiak ez dit sinesten.

—Nola? Bera ezagutu gabe lortu al zenion pasaporte bat?

—Nik ez nion berari lortu.

—Nori orduan?

—Sandia lagunari.

—A!, gure esku dago. Zure berriak eskertzen dizkizut. Eta berehala agindu zuen nire laguna atxilotzeko eta bien bitartean ni leku abegitsuren batean giltzapetzeko.

Bi egun geroago nire laguna eta biok jarri gintuzten aurrez aurre. Berak, noski, nire hitzak berretsi zituen.

Galde egin zidaten ea nora joan nahi nuen Petersburgo-tik joanda.

—Tsarkve-Selo-ra joan naiteke?

—Ez; urrunago.

—Eta Mosku-ra?

—Ezta ere.

Tula proposatu zuten. Zer axola niri?

Erantsi egin zuten:

—Ez dizugu urrunago joaten eragotziko, hala nahi izanez gero. Baina hiru urte igaro arte ez zaitugu Petersburgo-n ikusi nahi. Zure paper guztiekin geratuko gara. Ordainez, hemen duzu Tula-raino joateko bidaia-baimen hau. Har ezazu eta saia zaitez hogeita lau orduen barruan alde egiten.

Eta zer? —pentsatu nuen—. Nagusien esana egin beharra zegok... Zer bestela, bada?

Orduan, neukan guztia saldu nuen, zirtzilkeria hutsa alegia, eta nire maitalearen etxera joan nintzen. Etxean ni ez hartzeko debekua emanda zeukan, madarikatu halakoak!

Bizpahiru ezagunen etxera jo nuen, izurriduna banintz bezala hartu ninduten ordea. Guztiei burla egin eta jostatzeko lekuren bat bilatu nuen Petersburgo-n eman behar nituen azken orduak igarotzeko.

Goizeko seirak aldean atera nintzen, poltsikoan txakurrik ere ez neukala. Kartetan jokatzen den-dena galdu nuen-eta. Funtzionari batek halako araztasunez lumatu ninduen, ezen, trebezia miresgarria baitzuen... Zer egin, orduan? Mosku-ko tren-geltokira jo nuen; tren bat irteteko zorian zegoen eta wagoi batera igo nintzen. Bigarren geltokian, trenetik jaitsiarazi ninduten triunfalismo handiz. Auzipetu nahi ninduten. Nor nintzen galde egin zidaten; nire baimena erakutsi nien eta orduan bakean utzi ninduten. «Zoaz urrunago», esan zidaten.

Joan egin nintzen. Hamar besta inguru egin nituen, eta nekaturik nengoen eta gose nintzen. Orratza-zain baten etxola ikusi nuen. Esan nion:

—Lagun, emadazu ogi-zati bat.

Une batez begiratu zidan; gero, ogia ezezik, katilukada esnea ere eman zidan.

Gaua hantxe igaro nuen aurreneko aldiz, eskaleen modura, aire zabalean, belar gainean.

Esnatu nintzenean, eguzkia dirdirka ari zen. Orratz-zainak ogia eman zidan berriz ere eta bideari heldu nion.

Zera ulertu behar duzu zuk: eskalearen bizimoduan lotzen zaituen zerbait jarkiezina dago. Lagun hurkoen artean bizi garenean existentzia estutzen diguten betebeharrak, lotura orotatik askatuta sentitzea boluptuositatea bezalakoa da. Izan ere, bizitzan gogaitzen gaituzten zehaztasun orotatik askaturik egotea da hori, eta ekarri beharko ligukeen alaitasunaren ordeztu (bestela ere zama aspergarria litzatekeena), zama jasangaitza bihurtzen zaigu, eta zergatik?, bada klase horretako eginbeharrengatik, izan ere halako moduan janztera eta hitz egitera behartzen baikaitu, den-dena egitera ohituren arabera eta ez batek nahi lukeen bezala. Ezagun batekin topo egiten dugunean, esan behar zaio: «Ondo izan, lagun», ohitura den bezala; eta ez «lehertuko ahal haiz» askotan zinez nahi genukeen legez.

Oro har, egia esanda, zer dira jende agurgarrien arteko harreman harrputz ergel horiek guztiak? Komeria tamalgarria. Eta are komeria

zitala ere, zeren inork ez baitu esango bestea bertan dagoela: «Lerdo hutsa zara; alproja galanta...». Eta hala gertatzen bada, hira deitzen dugun benezkoatasun-oldarraldi batean baino ez da izango.

Eskalearen bizimoduan, berriz, zirtzilkeria horietatik kanpo zaude... Bizitzako zenbait erraztasuni penarik gabe uko egin izanak, eta halakorik gabe bizi izatea posible dela ikusteak nor bere begien aurretik igotzen gaituzte mailaz modu txit atseginean. Nork bere buruarekiko barkaberagoa bilakatzen da. Ni ez naiz sekula oso zorrotza neronekin izan eta bihotz-zimikoez kalte gutxi ekarri didate. Nire bihotza atzapartzen adimenaren hatzaparrekin ere ez naiz inoiz entretenitu. Oso gaztea nintzenetik jabetu naiz filosofiarik jakintsuen eta sinpleenaz, notaririk gabe endemas —nolabait esanda—: «Edozein modutan bizi izanda ere, berdin-berdin hilko haiz». Hortaz bada, zer dela-eta borrokatu norberarekin? Zer dela-eta ahalegindu ezkerretara jotzen, izadiak indar osoz bultzatzen bazaitu eskubitara jotzera? Nik, bitan erdiratzen diren pertsonak ezin ditut jasan... Zergatik egiten dute? Zoro horietariko batzuekin hitz egitea suertatu izan zait zenbaitetan. Galde egiten nien: Zer ari haiz abesten, anaia? Zer dela-eta ari haiz eskandalizatzen? «Nire burua hobetzen saiatzen ari nauk», erantzuten zidaten. Eta zertarako? «Nola zertarako? Bizitzaren zentzu ona gizonaren hobekuntza horretan dagoelako.»



—Bada ez diat ulertzen. Zuhaitz bat hobetzeak badik ageriko arrazoi bat: zuhaitza hobetzen diagu zerbaitetarako balio dezan. Arkutxak, zerraldoak eta gizonarentzat baliagarriak diren beste gauza batzuk egiteko baliatzen gaituk egurraz. Edozelan ere, hobetzea hire arazoa duk. Baina, esadak: zergatik erasotzen didak eta zergatik saiatzen haiz ni hire federa bihurtzen?

Erantzuten didate:

—Ezjakina haizelako eta bizitzaren zentzua bilatzen ez dualako.

—Bada aurkitu egin diat, ergela naizelako eta nire ergeltasunaren gaineko kontzientziak zeharo larritzen nauelako.

—Gezurretan ari haiz —esaten dute zoro halakoek—. Hire egoeraz jabetzen haizenez gero, zentzatu behar duk.

—Nola zentzatu? Ni bakean bizi nauk nire buruarekin. Arrazoia eta sentimenduak nigan gauza bakarra eta berbera dituk, eta hitza eta ekintza nigan zeudek harmonia osoan.

—Hori —esaten dute— zitalkeria eta zinismoa dituk.

Eta halaxe irizten diote denek. Badakit gezurretan ari direla eta ergelak direla. Hori badakit

eta beraz mespreza ditzaket. Gizonak ezagutzen ditudalako. Eta gaur egun zital, zikin eta gaiztoa den guztia bihar zintzo, puru eta ona dela aldarrikatuko balute, horiek guztiak zintzo, puru eta onak izango lirateke bihartik bertatik aurrera, inolako ahaleginik egin-beharrik gabe.

Hau guztiau urrunegi joatea dela esango didazu. Inolaz ere ez. Argi eta garbi ikusiko duzu. Nik diot: zerbitza ezazu Jainkoa edo deabrua. Benetako miserableak elezuri zintzoak baino gehiago balio baitu beti. Kolore zuria eta kolore beltza daude; eta nahastuz gero, kolore zikina egongo da.

Nire bizitza guztian ez dut gezurrezko jende prestua baino ezagutu; prestutasuna, gizabanako horiek eskale moduan leiho azpitik bildutako puska desberdinez osaturik egongo balitz bezala.

Beste prestutasun pedante bat ere badago: gizonok liburuetatik hartzen duguna; eta balio diena, janzkirik hoberenek bezala, festa-egunetarako. Eta, oro har, jende prestuarengan ona den guztia ez da naturala: harrokeriatan ibiltzeko baliatzen baitira hartaz. Izatez zintzoak ziren pertsonak topatu izan ditut... Baina halakoak gutxitan aurkitzen dira eta ia-ia beti maila apaleko gizasemeen artean, hiritik kanpo... Berehala ulertzen da zintzoak direla. Eta ikusten da zintzoak jaio direla, bai.

## XI

Badakit nire bizitzako egitateen berri ematen ari natzaizula azal gainetik eta labur, eta zail egiten zaizula «zergatik» eta «nola» ulertzea, baina hori nire kontua da. Garrantzitsuenak ez dira egitateak, jarrerak baizik. Egitateak lohikeriak eta zabor-hondakinak baino ez dira. Haiztoa hartu eta eztarrian sar diezazuket. Horra egitate kriminal bat. Eta haizto berbera nigan sartzen badut, hori ere egitatea izango da. Oro har, egitaterik anitzenak egin daitezke izpirituaren jaidurak uzten badigu.

Den-dena datza jaidura horretan. Horrek sortzen ditu egitateak, ideiak... eta idealak. Eta ba al dakizu ideala zer den? Bada hain zuzen gizona animalia zirtzila bilakatu eta atzeko hanketan ibiltzen hasi zen garaian asmatutako makulua, besterik ez. Egun batean, bekokia lurretik altxatzerakoan zeru urdina ikusi zuen eta argitasun horren handitasunaz itsuturik geratu zen. Orduan esan zuen bere artean ez-nolanahiko ergelkeriaz: erdietsi egingo dut. Eta orduz geroztik makuluekin ibili zen, horiei esker zutik iraun ahal izan baitu atzeko hanken gainean egun arte.

Ez pentsa nik ere zeruraino igo nahi dudala. Ez dut sekula mota horretako desirarik izan... Hori diot soil-soilik esaldi on bat eratzeagatik, noski.

Nire istorioa berriz ere nahasi da. Berdin dio. Eleberrietan bakar-bakarrik garatzen da arauz gertaeren haria; gure bizitza, ordea, bobina konplikatua da. Gainera, eleberriak direla ematen du, eta nik lan hau dohainik nahi dut egin... Deabruak daki zergatik.

Mantenua nola lortu behar nuen ulertu bezain laster, areago gustatu zitzaidan nire bizimodu hau.

Behin nire bidetik nindoala, urrunean egoitza dotore bat eta itxura oneko hiru pertsona ikusi nituen, gizaseme bat eta bi andere, ebakitako gari-soroen artetik nigana hurbiltzen. Gizonak ordurako zenbait ile zuri zituen bizarrean, betaurrekoak zerabiltzan eta oso buru ederra zuen; andereok itxura hotz-hotza zuten, baina noblea ere bai. Martiri-begitarte jarri eta parean izan nituenean gaua haren egoitzan igarotzeko baimena eskatu nien. Eman zidaten eta gauza asko aditzera ematen zituen moduan begiratu zioten elkarri. Gizalegez agurtu nituen; eskerrak eman ondoren, ibiltzeri eman nion presarik gabe. Nirekin hizketan hasi ziren, nor nintzen eta nondik nentorren galdetu gabe.

Oso pertsona arruntak ziren. Pentsatzeko zuten modua txit liberala zen, eta eurek asmatzen zituzten nire erantzun guztiak, halako moldez non etxera heldu ginenean deabruak ahal zekien zenbat gezur ez nizkien kontatu.

Esan nien herria ikertu eta irakasteaz arduratzen nintzela; nire arima hainbat ideiaren gatibua zela; e.a., e.a.

Haien aurrean antzestu behar nuen zereginaren zailtasunaz jabetu nintzenean, apurtxo bat artega sentitu nintzen. Baina afaldu ondoren hura antzestea komeni zela ulertu nuen, ezin hobeto jaten nuelako. Sentimenduz jaten zuten, pertsona ikasiek jaten duten bezala.

Berehala prestatu zidaten logela; nagusiak fraka batzuk eman zizkidan.

Nirekin oso atsegin jokatzeko zuten. Eta ordain egokia emateko, nire irudimena askatu baino ez nuen egin behar izan.

Ene Birjina txit santua, nolako gezurrak kontatu nizkien! Zer ote da Khlestakoff<sup>2</sup> nirekin alderatuta?

Nik gezur esaten nuen nire gezurrarekiko ezaupidea inoiz galdu gabe eta nire faltsukeriez gozaten nintzen.

Halako gauzak kontatu nizkien, ezen, Itsaso Beltzak entzun izan balit gorritu egingo litzatekeen.

---

<sup>2</sup> Khlestakoff: Gogolen "Ikuskatzailea" komedia ospetsuaren pertsonaia nagusienetako bat. Bere gezurrak sinesten amaitzen zuen gezurti porrokatua.

Jende onbera haiek plazerez entzuten zidaten; euren gaixoturiko semea bera izan banintz bezala entzun eta animatzen ninduten. Nik, ordea, ipuinak baino ez nituen asmatzen.

Orduan, oso baliagarriak gertatu zitzaizkidan garai batean irakurritako liburuak eta nire emaztearen fariseoek elkarren artean izan ohi zituzten eztabaidak.

Benetan diotsut gezur esatea goi mailako gozamena dela. Gezur esaten baduzu eta sinesten zaituztela ikusten baduzu, jendeen gainera hegan egiten sentitzen zara, eta sentimendu hau aparteko boluptuositatea da. Gainera, beti da gauza atsegina lagun hurkoaz abusatzea.

Gizonon fantasiak, umeak, ilusioak eta horri loturiko gauzak oro baino ezer interesgarriagorik munduan egon ote daitekeen zalantzan jartzen dut.

Har dezagun, esaterako, maitasuna. Nik beti maitatu dut emakumeengan ez zeukatena eta nik uzten niena. Ez dugu gezurra kaltegarritzat jo behar, ezta beti egia esan beharrik ere, inork ez baitaki ziur zer den egia, eta baliteke euren paperak antzestean desengainu handia hartzea.

Ikusten dudanez, Sofokles-en modura filosofatzen hasi naiz, negozioez arduratu ordez.

Beraz, gezur esan nien jende onbera haiei nire irudimena agortu zen arte. Eta haientzat gogaikarria bihur nintekeen arriskuaz ohartu nintzenean, alde egin nuen, haien etxean hiru aste igaro eta gero.

Biderako behar den guztiez horniturik, ondoen zegoen tren-geltokira jo nuen Mosku-ra joateko asmoz. Mosku eta Tula arteko bidea trenez egin nuen, eta Estatuaren kontura gainera, tren-arduradunen axolagaberiari esker.

Behin Tula-n Poliziako buruaren aurrean aurkeztu nintzen. Eta galde egin zidan:

—Zertan arituko zara hemen?

—Ez dakit.

—Eta zergatik bidali zaituzte Petersburgo-tik?

—Egia esan, hori ere ez dakit.

—Kode penalean aurreikusita ez dauden hutsengatik izan al da?

Ez adituarena egin nuen.

—Ez zara oso gizon berritsua.

—Nork bere izaera du, jauna.

Une batez gogoeta egin zuen. Azkenik, esan zuen:

—Bizilekua zuk zeuk aukeratzen duzunez, hemen gustura egon ezik, urrunago joatea badaukazu. Herri gehiago daude, besteak beste: Orel, Kursk, Simolensko... Nahi izanez gero, bidaiatzen jarraitzeko baimen-agiria luzatuko dizut. Biziki gustatulo litzaiguke zure osasunaz kezkatu beharrik ez izatea. Kezken faltarik ez dugu, berariaz, eta —barka gure hizketa garbiagatik— gure kezken kopurua handiagotzeko moduko gizona zarela iruditzen zaigu.

—Bada ni oso ondo nago hemen.

—Orduan, hiru errublo eskaintzen dizkizut bidaiarako.

—Egia esan, lana ez didazu behar bezala estimatzen. Nahiago dut, beraz, Tula-ko legeen babespean geratzea.

Hark, ordea, ez zuen horrelakorik nahi. Konbinaketak ondo egokitzen zekien gizona zen. Eta tratutan luzaro aritu eta gero, hamabost errublo onartu eta Smolensko-rantz abiatu nintzen.

Giza arimaren malgutasunaz jakilea naizenez, kemen handiz baieztatu dezaket —zeren horrela irakatsi baitit esperientziak— ezen adimena



indar erraldoia dela. Zu oraindik gaztea zara, fida zaitetz guztiz zure adimenaz eta ez duzu sekula amore emango.

Urratsak bideratu nituen hortaz Smolensko-rantz, aldez aurretik ziurtaturik inoiz ez nukeela faltan izango: lehenengo aldiz, jende onberaren sorospena; bigarren aldiz, Poliziaren konplizitatea. Batzuei atsegin ematen nien, zeuzkaten sentimendu karitatiboak kanporatzeko aukera ematen nielako; besteei dagokienez, ez nien gauza bera eman beharrik. Beraz, soberan zeukaten guztia hartzea erabaki nuen. Hori nola lortu nuen ikus dezagun adibide hau:

Nitaz eta nire jokabideaz eta nire jarreraz pozik nindoan batean, nekazari batek begira-begira geratu eta galde egin zidan:

—Tanteatzailea al zara?

Nik ez nekien hitzak zer esan nahi zuen, baina erantzun nion ikaragaitz:

—Bai, hala da.

—Pozten naiz. Treporka-tik pasatu behar al duzu?

—Bai.

—Eta berehala hasiko zara gizonak kontratatzen?

—Berehala, bai.

—Zenbat hartuko duzu berme modura?

—Hogei kopek.

Hitzaren esanguraz oharturik, galde egin nion ea zenbat biztanle ziren, zenbatek lan egin zezaketen soroetan, zenbat peoi eta zenbat zaldizko ziren. Arren eskatu zidan barruti hartako langileak har nitzan. Niri berdin zitzaidan. Eta hogeita bost errubloko biletea jaso nuen herri hartako langileak kontratzeari lehentasuna emateagatik; hogei kopek peoi bakoitzeko eta hogeita hamar zaldizko bakoitzeko, lanera aurkeztuko ziren garantia gisa. Guztira 100 errublo izan ziren. Ordainagiriak izenpetu, hitz polit batzuk esan eta agur esan nien.

## XII

Smolensko-ra heldu nintzenean, urtaro hotza hasita zegoen. Beraz, bertan gelditzea erabaki nuen.

Euren egoitza eskaintzen zidaten kristau eskuzabalak aurkitzen jarraitu nuen beti.

Erosotasun handiz igaro nuen urtaroa. Baina udaberria goiz heldu zenean, alderrai ibiltzeko sena nitaz garaile atera zen, hiritik kanpora bultzatu ninduelarik. Nork eragotziko zidan noraezean aske ibiltzea?

Noraezean ibili nintzen, bai, uda garaian; eta Gabonetan berdin jarraitu nuen Elisaretgrad-era iritsi arte.

Hiri hartako egunkarian, lan gutxi ematen zidan erredaktore-lanpostua lortu nuen. Han bazegoen zalduneri akademia bat. Nobleziako ofizial batzuekin harremanetan jarri eta karta-jokoak antolatu nituen.

Negozio bikaina. Hain bikaina, ezen, negu osterako mila errublo inguru bilduta neuzkan...

Hurrengo udaberriak poltsa ondo betearekin eta jauntxo-itxurarekin aurkitu ninduen.

Nora jo beraz? Staviank-era joatea erabaki nuen, bainuetara. Jokoan aritu nintzen zorte handiz abuztura arte, alde egin nuenean.

Hurrengo negua Jitomí-n igaro nuen, emagaldu huts baina edertasun paregabekoa zen andre batekin.

Holaxe labaintzen joan ziren Petersburgo-tik erbesteratuta igarotako urteak, bertara oster

itzuli nintzen arte —zeren nigan bazuen halako erakarpen jarkiezina.

Trenez heldu nintzen handikiak bezala, baliabide askoren jabe.

Aspaldiko lagunak berreskuratzen saiatu nintzen.

Mosku eskualdeko pertsona liberal eta ikasien artean eginda neuzkan balentriak ezagun zituzten. Den-dena zekiten: Ivanoff-en etxean igarotako aste laburrak (gezur pedagogikoen segizioa eta guzti), Petroff sendiarekin erakutsitako jokabidea, edota Stephanoff familiari egindako irainak.

Ez nintzen harritu, saihestezina baitzen. Eta esaerak dioenari jarraitu nion: zazpi ate ixten den tokian, ireki itzazu hamar ate... Baina zorreak ez zidan lagundu.

Ahal den guztia egin nuen posizio ohoragarria lortzeko, alferrik baina. Moldatzeko gaitasuna neurri handi batean galduta ote neukan?, edo gizarteak bere arantza zorrotzak erakusten zizkidan? Nire atsekabearen erdian, deabruak iradoki zidan nire zerbitzuak Polizia Sekretuaren Atalari eskaintzeko ideia.

Joko-etxeetan zaintzako agentea izatea proposatu nien. Baldintza ezin ederragoetan onartu

ninduten. Eta lanbide ikustezinari beste ohore bat erantsi nion, bigarren mailako egunkari batean lanean hasiz. Kaleko kronika jartzen nuen idatziz eta noizean behin foiletoiak idazten nituen arrapaladan.

Berriz ere jokatzeko hasi nintzen eta jokoak erotu ninduen, halako punturaino, non nire nagusiei kontuaren berri emateari utzi bainon, eta zeharo ahaztu nintzen nire betebeharez. Eta halako batean, gauez, Poliziak bete-betean harrapatu ninduen, jokatzeko.

Biharamonean Zuzendaritzakoek deitu zidaten; astakeria piloa esan zidaten eta Petersburgo-tik bota ninduten... Berriz ere erbesterratu ninduten, hortaz, hamar urte igaro arte espreski debekatu zidatela itzulera.

Sei urte daramat hara eta hona, eta ez doakit hain gaizki; eta nire patua dela-eta ez natzaio zeruari kexati zuzentzen.

Ez dizut emango nire bizitzako azken garaiaren berri, zeren motelegia... edota azkarregia baita.

Txori-bizimodu alaia daramat. Batzuetan alea falta zaidala egia bada ere. Halaz guztiz ere, ez dut gehiegizko ezer eskatu nahi, erregerik boretsuenek ere atsekabeak izaten dituztela jakinik...

Txori-bizimodu honetan ez dago betebeharririk, eta hori berez onuragarria da; eta legerik ere ez dago, izadiarenak izan ezik.

Egia da, bai, noizean behin polizia jaunek izorratzen gaituztela; baina, zein ostatutan, onenatarikoan ere, ez al dago arkakusoren bat?... Ordainez, nahi duen tokian ibiltzeko aukera dugu.

Errusia Santuan leku gutxi egongo dira nik bisitatu ez ditudanak: Tolstoien koloniak, Mosku-k salerostokietako sukaldeak, Tchenslokhoff eta Muroma, Athos eta Kievo-Petchesk monastegia.

Eta jantzi berriak eskuratu bezain laster, atzerrirako bidea hartuko dut. Errumanian zehar bidaiatuko naiz, eta handik beste norabide batzuei helduko diet. Zeren Errusiaz asper-asper eginda nago. Izan ere, jostatzen nauen guztia eginda daukat hemen.

Ez dakizu zenbat gauza egin ditudan, zenbat gauza miresgarri kontatu ditudan, zenbat hitz miresgarri atera zaizkidan hiru urteotan. Baliteke erlijio-sekta berriak eta guzti sortu izana, konturatu gabe, Eskritura Santuei buruz erruz hitz egin dut-eta. Eta zuk badakizu mujik-a Bibliari loturik dagoela, eta parabola baten ganean berehala sortzen du sinesmen berri bat, ia beti miresgarria gertatzen dena.

Eta zenbat alditan predikatu dudan nekazaritzari buruz eta lurraren banaketari buruz! Bai. Irudimen handia sarrarazi dut gizakion adimenaren barruan!

Halaxe bizi naiz... Helbide tinkoa nahi izanez gero, berehala lortuko nukeelakoan nago. Buru-argitasuna soberan dudalako eta emakumeek izugarri maite nautelako.

Nicolaieff-era heldu bazain laster, Nicolaievsky-ra joko dut, han nire neska lagun bat bizi baita. Alarguna eta polita izateaz gainera, gizarte-maila ezin hobea du.

Agurtu orduko, esan egingo diot: Kapatka maitea, presta iezadazu bainua, garbitu eta jantzi nazazu, zurekin bizi izango bainaiz ilargi batetik hurrengora.

Berak halaxe egingo du azkar-azkar. Ni kanpoan nengoen artean, besteren batekin kontsolatu izan balitz, kale gorrira bidaliko du.

Hilabete edo gehiago egongo naiz bere etxean, nik nahi ukan arte.

Duela hiru urte aterpea eskaini zidan neguko bi hilabetetan, eta iaz lau hilabetez...

Luzaroago ere geratuko nintzatekeen, azkarragoa balitz. Baina tuntun samarra da. Bere

lorategiaz arduratzea beste eginkizunik ez dauka; hortik 2.000 errublo ateratzen ditu urtean.

Edo agian Kuban inguruetara joango naiz. Han kosako bat bizi da, Pedro Beltz izeneko. Santutzat nauka, eta jatorriz bertakoak diren askok ohitura zorrotzeko gizona naizela uste dute. Jende xalo eta amarrugabe askok esan ohi dit:

—Harzak hau, anaitxo. Eta piztuoik argizaritxo bat gure santuari tenpluan sartzen haizenean...

Oparia hartzen dut, pertsonen konfidantza estimuan dut, eta ez ditut egia nazkagarriarekin etsituta utzi nahi, txanponekin santuarentzako argizaria ez baizik neronen erabilerarako tabakoa erosiko dudala aitortuz.

Ez al dago handitasun antzeko zerbait gizonengandik bereiz egoteaz daukadan kontzientzian eta haien eta nire artean altxatu dudan murruari buruzko kontzientzia garbian?

Bizitza jolasa da... Bizi izateko daukadan sistemaren arabera, dena jokatu behar dut karta bakarrean: denak «ezer ez» esan nahi du, eta beti irabazten dut galtzeko beldurrik gabe —larrua ez bada.

Bestalde, egunen batean jipoituko banindute, elbarri utziko ez nindutelako itxaropena



dut; aitzitik, ondo hilda utziko nautela. Zer dela-eta kezkatu horretaz, gainera? Horraino iritsita, beldur izatea ergelkeria da. Beno bada, gazte, izan duzu nire istorioaren berri. Eta horren berri eman ezezik, filosofia apur bat ere erantsi diot. Eta egon ziur kontatu dizudanaz oso kontent nagoela. Eta hitz-jarioaren faltarik izan ez dudala uste dut. Areago, seguraski exageratu egin dut, horrek axola gutxi badu ere.

Nahiz eta egitateak gehiegikeriaz kontatu, kontatzeko erabili dudan modua nire arimaren isla fidela izan da. Nire irudimenak jateko gozoa eskaini badizu, egia hutsaren osagaiarekin izan da horrela.

Labur esanda, ea zer dela-eta kontatu dizudan guztiau? Nire hitzak aintzat hartzen ez dituzun ziurtasuna dudalako, lagun. Ondo egiten duzu gainera. Ez zaitez inoren hitzez fida. Berataz hitz egiten duen gizon orok gezurra esaten du halabeharrez. Zoritxarrari dagokionaz gezurra esaten du, urrikaltasuna pizteko... Zorionsua denean ere gezurra esaten du, bekaizkeria pizteko... Eta, labur esanda, besteak berataz ardura daitezen modu bakarra gezurra esatea delako.